
Erradikalizazio biolentoaren prebentziorako
gizarte- eta heziketa-programa

Uztartu

herri honetako ekipora
batzen gaituena

2019ko ekaina

Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

Euskadi, auzolana, bien común

Aurkezpena

Lehenik eta behin, aipa ditzagun hiru plan edo programa: “2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana”, “Eusko Jaurlaritzaren Jarduera-Programa bizikidetzaren sustatzeko Euskadiko komunitate islami-koekin lankidetzan”, eta –haiek biak Hezkuntzara ekarri asmoz egina– “Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020”. Izan ere, hiruretan ere badira heziketa-proiektu batzuk definiturik, erradikalizazio biolentoa prebenitzeko, hura edonolako delarik ere; eta ez da ez erraza ez ezpal bakarreko egurra. Erronka horri aurre egiten saiatzeko daukagu Uztartu programa.

Erradikalizazio-prozesuak, edonolakoak direlarik ere, lanerako gai eta kezka-iturri dira bai Europan bai Euskadin, indarkeria erabiltzeko bide izan daitezkeela-eta. Erronka horren hotsa geroz eta maizago entzuten da bizikidetzaren eta giza eskubideen plazan. Eta gazteen belarriak limurtzen ditu sarrien bortxaren murmurio horrek. Indarkeria izan daiteke... aitzakiatzat erlijioa duen terrorismoarena, futboleko bortxakeria, arrazoi politikoak dituen bortxa –berdin eskuin muturrekoa zein ezker muturrekoa–, eta izan daiteke arrazismoaren, xenofobiaren, islamofobiaren edo aporofobiaren bortxakeria.

Zentzu honetan zenbait galdera egiten dira. Hona lehenengoa: politika publikoen bidez zerbait egin ote daiteke erradikalizazio biolentoari aurrea hartzeko? Bigarrena: posible al da proposamen erabilgarriak eta efizienteak antzematea eta bultzatzea? Eta hirugarrena: nola, hau da, zer tresna eta estrategia baliatuta, urratu daiteke biolentziaren edozein adierazpen-mota saihesteko bidea?

Lehenengo galderari dagokionez, irmo samar esan daiteke politika publikoek politika prebentiboetan inbertitu dezaketela, eta horixe egin behar dutela, hain zuzen. Izan ere, horrelako inbertsiorik ez egitea arduragabekeria izateaz gain, nolabait, mehatxatzen gaituzten arazoei aurre egiteko obligaziotik ihes egitea edo hari zirkin egitea izango litzateke. Egiak, prebentzioa edozein arlotan da egin daitekeen inbertsiorik errentagarriena; baina konplexuena ere bai, seguru aski.

Bigarren galderari erantzuteko ñabardura bat egin behar dugu. Ez dago proiektu prebentibo baten efizientzia aurrez bermatzeko modurik. Biolentziari aurrea hartzea helburu duen hezkuntza-jarduera batek ez du bermatzen, eta are gutxiago epe motzean, gertaera biolentoak desagertuko direnik. Biolentzia baliatzea aukera baztergarria eta arbuigarria bilakatzerantz bideratu behar da prebentzioa. Prebentzioaren aldeko hezkuntzaren helburuak masa kritiko soziala sortzea izan behar du, soil-soilik bitarteko baketsuak erabiltzearen alde egiten duena, hau da, gertaera biolentoei erresilientzia ez-biolentoaren bidez erantzuteko gauza dena.

Hirugarren kontuari dagokionez, beharrezkoa da programa honen hipotesia zirriborratzea. Nola zabaldu bidea arrastoa utziko duen prebentziorako heziketa proiektu bati. Gizarte- eta heziketa-proiektu honek oinarrian duen hipotesia da erradikalizazio biolento guztiek kontzientzia pertsonalean arrazoi unibertsal erkideak aurki ditzaketela. Proiektu honek hipotesi hori esploratzeko bideari ekiten dio. Ibilbide horren bidez antzeman nahi dugu zein diren kausa unibertsal horiek, esperientzia pertsonalizatuetan islatzea ondoren, hezteko eta prebentzioa lantzeko helburuaz lantzeko azkenik.

Gizarte- eta heziketa-proiektu honek Gizalegez Akordioaren edukia du erreferentziazat, bai diagnosian bai helburuetan. Eta –gogora ekar dezagun– akordio hori hezkuntza arloko eragile ia-ia guztiek sinatu zuten, 2013ko urriaren 1ean, Donostiako Kursaal Jauregian.

Gizalegez Akordioa

Bake-kulturaren sustapenak eta gatazka suntsitzailen, giza eskubideen urraketen eta mota guztietako indarkeria-fenomenoen prebentzioak lotura zuzena dute bizikidetzaren urraketen honako lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Prebentziosko erantzun hori eratzearen, gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat garatzea adostu dugu, lau hezkuntza-oinarri alternatiboren bitartez:

*·Bizikidetzaren zera da, gure ikuspegia beti osatugabea dela onartzea. Muga esperientzia hezigi-
rriak dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarriketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.*

*·Elkarrekin bizitzea zailtasunen artean aukerei heltzen ikastea da. Balio positiboaren heziketak
fatalismoa eragozten du eta aniztasuna sustatzen du.*

·Elkarrekin bizitzea da egoera guztietan norberaren ardura etikoari eustea. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta enpatia eta elkartasuna sustatzen ditu.

·Bizikidetzaren da giza duintasunaren errespetua balio gorena dela ulertzea. Giza duintasunaren heziketa-esperientziak indarkeriara jotzea eragozten du eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizartea elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integrala sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere lau oinarri etiko horiei buruzko adostasuna abiapuntu modura hartuta. Hainbat eremutatik modu osagarrian sustatzea proposatzen dugu, modu sinple, sortzaile, libre eta askotarikoan.

Erradikalizazio biolentoaren pelikulak amaiera txarra izan ohi du. Txarra, protagonistentzat, haien biktimentzat, eta gizartearentzat. Galde dezagun, hortaz, ea zer egin dezakegun gidoia aldatzeko. Gu ez baikara pelikularen ikusle hutsak, gure bizitzaren eta elkarbizitzaren aktore ere bagara. Lana txukun egiten arlo horretan saiatu beharra dago bereziki. Arrazoi askorengatik. Erradikalizazio biolentoak gure gizartean zenbat adierazpide, hainbat arrazoi.

Lehen zatia

Oinarri kontzeptualak

Proiektu honen kontzeptuzko eta egiturazko oinarriak sarreran aipatu ditugun agirietan daude gehiago garatuta, batez ere “Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020” txostenean. Agiri honetan, ordea, hiru ardatz nagusiak azalduko ditugu labur-labur: diagnostia, estrategia eta helburuak.

1. Erradikalizazio biolentoaren arrazoiak eta kontzientzia pertsonala: diagnostia

Terrorismora edo arrazakeria, xenofobia edo islamofobia bezalako gorroto-delitueta jo aurreko erradikalizazio biolentorako prozesuetan ohikoa da kontzientzia pertsonalean lehentasuna ematea ezaugarri etniko, erlijioso, politiko edo sozial bati, edo genero edo jatorri etiketa bati, giza duintasunaren balioaren aldean. Etiketa horietan aurreiritziak, ezjakintasuna eta oldarkortasuna arrazoimenari eta gizatasunari gailentzen zaizkie.

Bizikidetzaren hausteko modu berriak dira. Gizalegez Akordioaren hitzaurrean azaltzen den bezala, bizikidetzaren hausten duten arrazoi nagusia gizakiaren kontzientzian dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa edo sektarismoa nagusitzea da. Humus horretatik hartzen ditu erradikalizazio biolentoak behar dituen elikagai ideologikoak eta justifikazioak.

Lau paradigma horiek gizartearen kulturen eta norberaren pentsamoldean txertatuta egon daitezke, diskrezioz. Lauek ere ezaugarri komun bat dute: inposizioa, indarkeria, giza eskubideen urraketa edo etikoak ez diren bideak erabiltzea normalizatzen dituztela. Erradikalizazio biolentoaren arrazoiak eta kontzientzia pertsonalari buruzko diagnostia osatzen dute:

1.1. Dogmatismoa

Norbera guztiz zuzen dagoela eta egia osoaren jabe dela pentsatzea dakar. “Segurtasun” uste hau nahitaezkoa da etikoak ez diren bideak legitimatzeko eta bideok erabiltzera ausartzeko. Dogmatismoa norberaren mugen kontzientzia behar bezalakoa ez izatearen ondorioz sortzen eta hazten da.

1.2. Fatalismoa

Funtsean ikuspegi biktimista da, eta inposizioa ez beste aukerarik ez dagoela pentsarazten du. Indarkeriaren erabilera “beste aukerarik ez dago” eta “besteek okerrago jokatzen dute” esanez justifikatzen da. Zailtasunen erdian dauden aukerak identifikatzeko ezintasuna du oinarrian.

1.3. Manikeismoa

“Biolentzia edo zerbait okerragoa” aukeretara murriztea dakar berekin. Arazoak alde aurreko dikotomia batera sinplifikatzen ditu, eta horrela kontzientziari jarraikiz hautatzeko arduraren eragozten du. Demagogia arriskutsua da: bidea zabaltzen die “denak balio du” moduko adierazpenei eta, gainera, aurkaria “etsai” bihurtzen du. Manikeismoa kontzientzia etikoan gutxi sakontzen denean zabaltzen da.

1.4. Sektarismoa

Giza eskubideei baino balio handiagoa ematen zaion ideia baten defentsa kolektibo eta zorrotzegia da. Bestea etiketa soil bihurtzen du. Gizatasuna galtzea ekartzen du, eta batzuetan are ergeltzea ere. Giza duintasunaren balio gorena behar bezala barneratuta ez edukitzean oinarritzen da.

Gizartearen eta hezkuntzaren ikuspuntutik, erradikalizazio biolentoaren prebentzioak zuzeneko lotura dauka bizikidetzaren apurtzen duten lau arrazoi horiei ematen zaion erantzunarekin.

2. Proposamen pedagogikoa

Proposamen honen proposamen pedagogikoak hiru lerro nagusi ditu: pedagogia bat, beste erreferentzia bat eta nonbaiteko kide bagaren ustea.

2.1. Gizalegez Akordioaren pedagogia

Erradikalizazio biolentoa gertatzen denean, prebentzioaren arloko erantzuna hezkuntza izan behar da: elkarrekin bizitzen eta denetariko herritarren artean integratzen irakastea. Bizikidetzaren balioetan hezi behar dira herritarrak, honako mezu hau oinarritzat hartuta: ez dago pertsonaren, giza eskubideen eta hauen oinarrian dagoen duintasunaren errespetua baino gauza garrantzitsuagorik.

Ondorengo lau puntuak aurreko atalean deskribatutako lau kontrabalioei ematen zaien hezkuntza-erantzuna dira. Gizalegez Akordioaren edukian sakontzen dute eta guztien artean partekatzen duten zerbait dute: pertsona bakoitzak hautatzeko ahalmena pertsonalizatzen laguntzen dute. Gizakion erreallitate eta ahalmen hutsak direnak garatzen dituzte. Ez dute ezer berria ezagutzera ematen, pertsona bakoitzaren izatean badagoena ezagutarazten dute.

2.1.1. Izaera mugatuaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea norberaren ikuspegiari beti zerbait falta zaiola onartzea da. Ulertu behar dugu inork ez duela inoiz arrazoi osoa, inork ezin duela dena egin, eta ez dagoela modurik egia osoaren jabe izateko. Hezkuntzaren ikuspuntutik, errealtatearen ezinbesteko manu hori ulertuko badugu, gizakion mugak onartzeko heziketa-esperientzia bultzatu behar da. Esperientzia horrek dogmatismotik babesten gaitu eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.

2.1.2. Balio positiboaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea zailtasunen artean aukerei heltzen ikastea da. Horretarako funtsezkoa da balio positiboaren heziketa-esperientzia sustatzea. Esperientzia horri esker ikas daiteke beti daudela etsipena eta etikoak ez diren bideetara jotzea baino aukera hobek. Balio positiboaren heziketak fatalismoa eragozten du eta aniztasuna sustatzen du.

2.1.3. Kontzientzia etikoaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea da egoera guztietan norberaren ardura etikoari eustea. Horrek berekin dakar norberaren kontzientzia etikoan sakontzeko heziketa-esperientzia sustatzea. Ez gara dogmatismo, amorru, oldarkortasun, beldur eta norberekoikeria bulkada hutsak; aitzitik, hori baino gehiago gara, arrazoibideak baititugu eta zentzu etikoz hautatzeko gauza baikara. Kontzientzia etikoaren heziketa-esperientziak manikeismoa eragozten du eta elkartasuna sustatzen du.

2.1.4. Giza duintasunaren pedagogia

Bizikidetzaren giza duintasunaren errespetua balio gorena dela ulertzea. Halaber, giza duintasunaren eta giza eskubideen heziketa-esperientzia sustatzea ere bada. Gizaki guztiok merezi dugu errespetua, eta denok dauzkagu eskubideak. Pertsonak etiketa eta norbanako murrizketa guztiak baino gehiago dira. Horren jakitun izatea erabakigarria da bizikidetzaren zibilizatua lortzeko. Giza duintasunaren heziketa-esperientziak indarkeriara jotzea eragozten du eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Ikuspegi estrategikotik begiratuta eta etorkizunean gizarte integratu bat lortzeko, beharrezkoa da bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura sustatzea, aipatu berri ditugun balioen tankerakoak lantzen dituen pedagogia unibertsala barne hartzen duten gizartearen eta hezkuntzaren arloetako proiektuen bitartez. Hezkuntzaren aldeko apusturik gabe, bakearen eta bizikidetzaren aldeko kulturarik gabe, gizarterako eta kohesiorako politikarik gabe eta epe ertain eta luzerako balioetan inbertitu gabe zaila izango da bizikidetzari agertzen ari zaizkion erronkei erantzun estrategiko eta globala ematea.

2.2. Beste erreferentzia bat

Indarkeria trebea da gure belarriak limurtzen. Erradikalizazioaren limurketan aritzea bezala da. Nahi ez badugu, beste zerbait eskaini eta erakutsi beharra dago, erradikalizazioarekin zerikusirik eta zereginik ez duen beste zerbait. Kontrapuntu erabatekoa behar da, indarkeriari ezezko biribila emango diona eta ateak ziplo itxiko dizkiona. Gizarte- eta heziketa-proiektu honetan, elkartasunaren aldeko apustua egiten da. Elkartasuna esperientzia baita –esperientzia modura azpimarratu behar da–, nork bere gisara ulertu eta bizi dezakeena.

Elkartasuna estuki lotua dago enpatiarekin. Gizakiok enpatikoak izateko gaitasuna daukagu. Gaitasun horrek elkartasunez jokatzeko aukera ematen digu. Elkartasuna aukerazko eta borondatezko erabakia da. Enpatikoa izateko gaitasuna eta elkartasunarekiko konpromisoa pertsonen ezaugarri espezifikoak eta unibertsalak dira. Are gehiago, gizakiok enpatia eta elkartasuna bereizgarri ditugula esan daiteke.

Enpatia beste pertsona baten lekuan jartzeko eta beste pertsona hori zaintzeko eta beraren egoera zailaz, justiziarik ezaz edo sufrimenduaz kezkatzeko gaitasuna da. Beste pertsona baten sufrimenduaz kezkatzeko gaitasuna dugunean, eta horrek zerbait egitera behartzen gaituenean, enpatia elkartasun bihurtzen da.

Pertsonen duintasuna bezala, enpatia ere kontzeptu bat da, eta ikasi ahal da. Baina, horrez gain, bada norberak bizi ahal duen esperientzia bat, berak unibertsoan duen irismena ulertzeko. Guk beste pertsona batzuen beharra sentitzen dugunean, enpatiaren beste aldea bizi dezakegu. Hurko batek jasaten duen justiziarik ezaren mina sentitzen dugunean ere esperimenta dezakegu.

Enpatia kulturari, hezkuntzari eta hedapenari lotutako balio handiko kontzeptua da, eta bizikidetzaren, giza eskubideen eta elkartasunaren arloko proiektu ororen oinarrian dugu. Izan ere, bestea eta besteak kontuan hartzen dituen bizikidetzakultura horrexek definitzen ditu enpatiaren aldeko hautuak. Bere baitako ate-leihoak kanpora zabalik dituen eta barruan zein kanpoan elkartasuna erakusteko gaitasuna duen gizarteak definitzen du.

Enpatikoak izateko gaitasuna handiagoa da, baldin eta hezkuntzan sentsibilitatea eta beste pertsona batzuei hurbiltzen ikasi badugu, pertsona horiek urrun edo hurbil egonda ere. Enpatikoak izateko eta elkartasuna adierazteko gaitasunak zibilizatzen gaitu. Enpatiarik eta elkartasunik gabe, mundua norberkoikeriaren bultzaden mende egongo litzateke.

Eremu globalean edo gure herrian bertan, familian edo munduan bizikidetzak bidezkoagoa lortzeko behar den oinarritzko oreka lortuko bada, pertsonak, erakundeak eta herrialdeak beren baitako ate-leihoak zabaldu, eta barneko zein kanpoko elkartasuna adierazteko gai izan behar dute; horixe da, hain zuzen, pertsonen, erakundeen eta herrialdeen gainean behar dugun kontzepzio politikoa. Enpatiak eta elkartasunak osatzen duten binomioan funtsezkoa da hezkuntza-arloko edukia, mundua ulertzeko eta errealitatea hobetzen laguntzeko.

Norberak bizi izan duenean giza elkartasunaren zentzu unibertsala, berez ernatzen zaio, bihotzean, indarkeriari ezetz esateko nahia. Horixe da da gizarte- eta heziketa-proiektu honen tesia. Kontrapisuak duen balioa: enpatia eta elkartasuna bizitzea. Bizitzaren zentzua zabaletik ulertzea. Begi aurrean bide berriak zabaltzen dira.

2.3. Nonbaiteko kide bagaren ustea

Gizakiok badugu joera indarkeriaren limurkeriatan jolasean ibiltzeko, batez ere bizitzak eta geure biografiak lehenagotik erakutsia baldin badigute, babesgabe utzita, zer den bakandua izatea, zer den indarkeria, kanporatua izatea edo baztertua izatea. Nonbaiteko kide izateko ustea sortu beharra dago. Non edo nongoa izatea, han ikustea gure burua, han goxo egotea, aitortua eta seguru.

Lehen esaten zen bezala, "nor edo norena" garen ustea garatzeko beharra daukagu gizakiok. Halako etxetakoa, lagunarte hartakoa, kultura, erlijio, politika-irritzi, kirol honetakoa... lagun-kide izan nahia daukagu, lagunei lotuta egon, ez gaitezen bakarrik sentitu.

Erljioak eta politika baino lehenagoko kidetasunen bat eraiki behar dugu. Erkidego-nortasuna eta -kidetasuna sustatu behar ditugu. Sentitzea bagarela nongoak edo zerbaitetakoak. Gizarte- eta heziketa-proiektu honen bidez, denon arteko kidetasun-zentzu bat sustatu nahi dugu. Giza eskubideetara lotzen garelarik, elkartasuna bizi dugularik, bagara talde bat, etxe bat. Konpromiso horrek eta esperientzia horrek bizi gaitu garen horretan.

Bigarren zatia

Estrategia didaktikoa

Hezkuntza-proiektu honen estrategia didaktikoak hiru helburu orokor ditu begiz jota, eta hiru tresna nagusi ditu baliagai: ikus-entzunezko materiala (bost spot eta dokumental bat); gida didaktikoa; eta, azkenik, lanerako eta zabalkunderako plana.

3. Helburuak

Uztartu Programa hiru helburu orokor lortzera dago bideraturik. Edukiaren nondik norakoa eta esanahia aztertzeke orduan, agiri honen lehenengo zatian azaldu ditugun kontzeptuzko oinarriak erabili behar dira argi modura:

- Elkarbizitza-kultura sendotzen laguntzea, bi oinarriren gainean: errespetuaren pedagogia; eta giza duintasuna, elkartasuna eta giza eskubideak sustatzea.
- Esperientzia eta bizipen pertsonalak eskaintzea tresna gisara, indarkeriaren lilurari ezetz erantzun ahal izateko, edonolakoa delarik ere.
- Erljioa eta politika baino lehenagoko kidesun bat eskaintzea. Giza eskubideak izango ditu ardatz.

4. Hiru tresna

4.1. Ikus-entzunezko materiala

Benetako istorio bat denon artean bizitzea da gizarte- eta heziketa-proiektu honen muina. Istorioa bera pelikula dokumental batean dago grabaturik: 16 gazte dira protagonista; ez dute elkar ezagutzen; baina gizarte- eta heziketa-proiektu honen gaiaren inguruan eztabaidan jardungo dute.

Egituraz, istorioak 11 minutuko bost kapitulu ditu; eta pelikulak izenburu hau du: “Badago zerbait herri honetako ekipora batzen gaituena”. Dokumentalean, 16 gazte horiek lau laguneko lau taldetan banatzen dira. Lau talde horietako bakoitza pelikulako lehen lau kapituluetakoko bateko protagonista izango da. Lau talde horiek ondorio batzuetara iritsiko dira, eta ondorio horiek bosgarren kapituluan jaso dira laburturik.

Dokumentaleko lehen lau kapituluek egitura bera dute. Lau laguneko gazte-talde bakoitzak 30 segundoko spot bat ikusiko du, eta, gero, hartaz eztabaidan jardun. Lau spot horietako bakoitzak Gizalegez Akordioaren lau puntuetako bat jorratzen du.

Lau spot horietan galdera batzuk erantzun gabe geratzen dira, eta bosgarrena, azkenik, haiei buruzko ondorio zenbait plazaratzeko darabilgu. 16 parte-hartzaileek gogoeta batzuk egingo dituzte, eta haien baterabilte moduko bat izango da dokumentalaren bosgarren kapitulua.

4.2. Gida didaktikoa

Bost spot horiek eta bost kapituluko dokumental horrek gogoeta kritiko bat sortu nahi dute erradikalizazio biolentora garamatzaten prozesuez, horretarako ikus-entzunezko baliabide bat dira; baina, gainera, nola egin erakusteko eredu bat ere eskaintzen dute, beren horretan. Edukiz, gida didaktiko bat dira. Edozein hezitzailek erabil lezake lagun-talde batean. Dokumentalean eztabaida bat erakusten da. Bada, gizarte- eta heziketa-proiektu hau aplikatzen den edozein testuingurutan eztabaida hori bera nahi da piztu. Funtsean, eginbeharrekoa izango litzateke gidoi honen jirabiran gutxi gorabehera ordubeteko bost saio egitea.

4.2.1. Egin beharreko lanaren aurkezpena

Lehenik eta behin, edozein gizarte- eta heziketa-testuingurutan, ekimen honi hasiera emateko, aurkezpen bat egin behar da, labor-labor eta erraz-erraz. Esate baterako:

- Gogoeta-prozesu bat egingo dugu, ea zer arrazoik eraman dezakeen norbait biolentzia erabiltzera, eta nola ekidin daitekeen. Ordubeteko sei saio egingo ditugu. Saio bakoitzean, hamaika minutuko dokumental bat ikusiko dugu. Dokumentala ikusi ondoren, lau-bost laguneko talde txikitan banatuko gara, dokumentalaren edukiaz hitz egiteko.

4.2.2. Lehenengo lau saioak

Aurkezpena egin ondoren, dokumentalaren dena delako kapitulua ikusiko dugu (adibidez, erreferentzia bat izate aldera, har dezagun lehenengo kapituluaren edukia).

Hortaz, ikusi dugu kapitulua, eta, orain, lau-bost laguneko taldetan, eztabaidari ekingo diogu. Fase honetan, eztabaida horrek hamar minutuko hiru zati izango ditu. Bideratzaile-lanak egiten dituenak eskema hau erabil dezake eztabaida pizteko:

-10 minutuko lehen tartea. Spotean esaten den lehen baieztapena aztertzea eta iruzkintzea: "Nor-bait hiltzera irits naiteke, sentitzen dudalako... ARRAZOI GUZTIA DAUKADALA"

•Zer esan nahi du esaldi horrek? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu ideia horren inguruan?...

-10 minutuko bigarren tartea. Spotean esaten den bigarren baieztapena aztertzea eta iruzkintzea: "Inor ez da egia osoaren jabe. Nire ikuspegiak beti osatugabeak dira".

•Zer esan nahi dute baieztapen horiek? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu ideia horren inguruan?...

-10 minutuko hirugarren tartea. Spotaren hirugarren zatia aztertzea eta iruzkintzea: "Badago lotzen gaituen zerbait desberdintasun guztien gainetik..."

•Bizi al gaitzke elkarrekin bakean? Diferentziak diferentzia, zerk batzen gaitu? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu ideia horren inguruan?...

4.2.3. Bosgarren saioa

Bosgarren saioa hasteaz batera, azpimarra ezazue oraingo honetan saiatuko garela denok batera egiten gogoeta, ea ondorioz taxutzen dugun. Aurkezpen hori egin ondoren, dokumentalaren bosgarren kapitulua ikusiko dugu.

Kapitulu hori ikusi ostean, eztabaidari ekin. Hasieran, lau-bost laguneko talde txikitik. Fase honetan, eztabaida horrek hamar minutuko hiru zati izango ditu. Bideratzaile-lanak egiten dituenak eskema hau erabil dezake eztabaida pizteko:

-10 minutuko lehen tartea. Talde txiki horietako kideei galdera hau egingo zaie, nahi badute erantzun dezaten:

•Saio hauetan guztietan, zerk eman dizu atentzioa gehien? Edo, zer iruditzen zaizu garrantzitsuenak? Edo, zer iruditzen zaizu ikasi duzula?

-10 minutuko bigarren tartea. Spotaren lehen zatia aztertzea eta iruzkintzea: Giza eskubideekiko konpromisoak batzen gaitu.

•Zer esan nahi du esaldi horrek? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu ideia horren inguruan?...

-10 minutuko hirugarren tartea. Bigarren baieztapena aztertzea eta iruzkintzea: Elkartasunaren esperientziak batzen gaitu.

•Zer esan nahi du esaldi horrek? Norekin identifikatu gara? Dokumentalean zer entzun dugu bereziki interesgarria iruditu zaiguna puntu horren gainean? Zer ekarpen egin dezakegu ideia horren inguruan?...

-Azken tartea. Amaitu dugu talde txikietan egin beharreko eztabaida, eta, orain, denok batera eztabaidatuko dugu.

•Zer ondoriotara iritsi da bakoitza? Zerk egiten du gu denok talde bat izatea?

Saioari amaiera emateko, adibidez, kide bakoitzari esan post-it batean laburpen-esaldi bat idazteko. Gero, bakoitzak berea irakurri, eta horman erantsita utziko du, denen begi aurrean.

5. Uztartu Programarekin lan egiteko plana

2019ko bigarren seihilekoan, material honen edukia hainbat aldetatik jorrazteko jarduera batzuk prestatuko ditugu, proba modura; eta asmoa jarduera horiek 2020an garatzea da. Proba egiteko jarduera horiek zorrotz-zorrotz ebaluatuko eta sistematizatuko dira. Gure proposamena izango da proba-jarduera horiek gutxienez arlo hauetan lantzea:

- Hezkuntza formalean.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin.
- Erljioarteko Euskal Kontseiluarekin.
- Futbol-taldeekin.
- Tutoretzapeko etxebizitzetan dauden adingabe edo gazte babesgabeekin.
- Espetxeetan.

Gainera, osagarri modura, eta EITBrekiko lankidetzaren arabera, bai spotak bai dokumentala (“Badago zerbait herri honetako ekipora batzen gaituena”) euskal telebistan emango dira, kate batean eta bestean.

Azken sintesi modura

Uztartu Programak tesi nagusi bat du oinarrian. Erradikalizazio biolentoa gertatzeko, beharrezkoa da isuri kognitibo batzuek beren eragina giza kontzientzian proiektatu dezaten. Isuri kognitiboak diezaiekegu, baina baita, hizkera xehea erabiliz, aurreiritzi edo, besterik gabe, oker uste ere. Heziketarako material honek batez ere lau isuri kognitibo jorratzen ditu. Hauek, hain zuzen ere:

- “Barne-barnean, ziur naiz arrazoi guztia daukadala”, dogmatismoaren eragina dago hor.
- “Garbi sentitzen dut ez dagoela ezer ez onik ez positiborik”, horra hor fatalismoaren eragina.
- “Labur esanda: edo biolentzia edo beste gauza okerragoren bat; dena da balekoa-berdin zait dena”: errealitatearen murrizketa demagogiko baten eragina dago hor: manikeismoarena.
- “Ez dago zalantzarik, nire ideiak eta nire taldea dira lehenengo”, sektarismoaren eraginez.

Isuri kognitibo horiek aurreiritziak dira, kontrabaliok, oker usteak, influentziak... baina denek ere kontzientzian ate moduko bat zabaltzen dute, erradikalizazio biolentoa baliatzeari zilegi irizteko zirrikitu bat. Zer erantzun-estrategia erabili? Beste balore batzuetan inbertitu behar, beste eragin, erreferentzia eta alternatiba batzuetan.

Heziketa-material honetan garatzen den lan-hipotesiak dio ezen, erradikalizazio biolentoiari aurre hartuko badiogu, gogoeta eta esperientzia sustatu beharra dagoela lau erdigune pedagogikoren inguruan, haien bidez beste alternatiba bat emateko aurreiritzi horiei. Eta erdigune pedagogiko horietara behin eta berriz itzuli beharko dugu:

- “Inor ez da egia osoaren jabe. Nire ikuspegiak beti osatugabeak dira”. Limitazioaren pedagogiaren inguruko gogoeta eta esperientzia.
- “Beti bada zerbait positiboa dena. Zailtasunen artean, aukerak bilatzen ditut”. Positiboaren pedagogiaren inguruko gogoeta eta esperientzia.
- “Neure buruari galderak egiteko kontzientzia daukat. Nire ekintzak aukeratzeko eta hauen ondorioen erantzukizuna nirea da”. Kontzientzia etikoaren pedagogiaren inguruko gogoeta eta esperientzia.
- “Garrantzitsuena pertsona errespetatzea da. Nire ideiek eta nire taldeak ez dute bizitza eta giza duintasuna baino gehiago balio”. Giza duintasunaren pedagogiaren inguruko gogoeta eta esperientzia.

Uztartu Programaren estrategia didaktikoa horixe da, lau uste oker horietan eta haien kontrapuntu ideologikoetan behin eta berriz sakontzea. Ez da lan zaila, baina gizakiaren alderdirik berezienean eta unibertsalenean sakontzea eskatzen du.

Isuri kognitiboen eta erdigune pedagogiko alternatiboen laburpen-taula

Isuri kognitiboak (Aurreiritziak, kontrol-tresnak edo uste okerrak)	Erdigune pedagogikoa: gogoeta eta bizipen alternatiboa
I.	
“Barne-barnean, ziur naiz arrazoi guztia daukadala”	“Beti bada zerbait positiboa dena. Zailtasunen artean, aukerak bilatzen ditut”
Dogmatismoaren eragina	Izaera mugatuaren pedagogia
II.	
“Garbi sentitzen dut ez dagoela ezer ez onik ez positiborik”	“Siempre hay algo positivo. Puedo buscar las oportunidades entre las dificultades”
Fatalismoaren eragina	Balio positiboaren pedagogia
III.	
“Labur esanda: edo biolentzia edo beste gauza okerragoren bat; dena da balekoa-berdin zait dena”	“Neure buruari galderak egiteko kontzientzia daukat. Nire ekintzak aukeratzeko eta hauen ondorioen erantzukizuna nirea da”
Manikeismoaren eragina	Kontzientzia etikoaren pedagogia
IV.	
“Ez dago zalantzarik, nire ideiak eta nire taldea dira lehenengo”	“Garrantzitsuena pertsona errespetatzea da. Nire ideiek eta nire taldeak ez dute bizitza eta giza duintasuna baino gehiago balio”
Sektarismoaren eragina	Giza duintasunaren pedagogia

